

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

**KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA**

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Barkos Lehendakariak 948 Merkatua- Nafarroako Arteen Merkatua inauguratu du

*Nafarroako eta beste eskualdeetako kultura eta sormen industrietako 1.000 profesional baino gehiagok hartuko dute parte nazioarteko irismeneko azoka honetan*

Asteazkena, 2018.eko azaroak 21

Nafarroako Lehendakariak, Uxue Barkosek, gaur goizean inauguratu du Baluarten 948 Merkatua-Nafarroako Arteen Merkatua, eta azaroaren 22ra bitarte, Nafarroako eta beste eskualdeetako (estatukoak nahiz nazioartekoak) kultura eta sormen industrietako 1.000 profesional baino gehiago elkartzeko plataforma izango da.



Arduradunak Europako Komisio, Kultura Ministerio, EAE, Errioxa, Akitania Berria eta Caja Navarra Fundazioko kideekin.

Barkosek bere hitzaldian nabarmendu du 948 Merkatuak Nafarroan sektore horiek dituzten premiei erantzun nahi diela eta haien kultur produkzioa sektore eta lurralde ezberdinetako banatzaileei eta agenteei erakutsi; beraz, “maila profesionalean erreferenteak izango gara arteen munduan”.

Bestalde, gustura agertu da Nafarroako Gobernuak sormen-industrien alde egindako apustua, Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategian nabarmendutako sektore bat izanik, “hazten ari den industriaren bilakaerak babesten duelako, eta horrek etorkizuneko sektorea izateko duen potentziala berresteagatik”.

Lehendakariarekin batera, inaugurazioan honako hauek hartu dute parte: Ana Herrerak, Nafarroako Gobernuako Kultura, Kirola eta Gazteriako kontseilariak; Guillaume Delpiroux-ek, Akitania Berriko Gobernuako Kultura eta Ondareko eskualde-zuzendariak; Joxean Muñozek, Eusko Jaurlaritzako Kulturako sailburuordeak; eta Maider Belokik, Iruñeko Udaleko Kultura eta Hezkuntzako zinegotzi delegatuak.

Inaugurazio-ekitaldiaren ondoren, Uxue Barkos Baluarten bildutako profesional batzuekin egon da. Gainera, zuzenean ezagutu ahal izan ditu parte hartzen duten enpresak (27 stand), eta hitzaldien, tailerren edo proiektuen aurkezpenen inguruetan barrena ibili da.

Halaber, 948 Merkatua-Nafarroako Arteen Merkatuaren lehen egunean bertan izan dira honako hauek: Elisabeth Douzille, Akitania Berriko Eskualde Kontseiluko Hezkuntza eta Herritarren Departamentuko idazkari nagusia; Nathalie Leuret, Bordeaux-eko Kultura eta Ondareko zuzendari ondokoa; Adriana Moscoso, Kultura Ministerioaren Kultur eta Sormen Industrien zuzendaria; Barbara Stacher, Europako Batzordearen Kultura eta Sormen Industrien Zuzendaritza nagusia; Aitziber Atorrasagasti, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sustapeneko zuzendaria; Nacho Escuin, Aragoiko Gobernuko Kulturako zuzendari nagusia; Eduardo Rodriguez, Errioxako Gobernuko Kultura eta Turismoko zuzendari nagusia; eta Dori López Jurío, Nafarroako Gobernuko Kulturako zuzendari nagusia.

Arratsaldean, 30 erakusketa artistiko baino gehiago egingo dira hiriko puntu ezberdinetan; halaber, Zitudadelan, obra-ikuskaldia eta arte plastikoko proiektuen aurkezpena egingo da; eta Nafarroako Museora eta Nafarroako Unibertsitatea Museora bisita gidatuak egin ahal izango dira.



Lehendakaria eta Herrera kontseilaria azokara bisitan.